

AVIOTV

2020KO ABENDVAREN 14EAN EGINDAKO
SAIOAREN AKTA



AUZOTU

komunitateak konektatzen
conectando comunidades

SARRERA

Pandemiak eragindako krisiak eragin handia izan du gure arteko harremanetan, eta erronka eskergakoa da komunitatean parte hartzeari dagokionez. Bizilagunek, batzuek bakarka eta beste askok auzoko erakundeen bidez antolatuta, bai eta konfinamendu egoeraren aurrean sortutako zainketa sareen inguruan ere, modu eredugarrian erantzun dute. Adibidez, Amaraberrin, Zaintza Sarean (berehala aktibatu zuten alarma egoera aldarrikatzearekin), ehun eta hogeitabat pertsonak parte hartu dute, eta hiruogei eta hamar pertsona artatu dituzte martxoan, apirilean eta maiatzean.

AUZOTU, ZERGATIK?

Urruntze sozialeko neurrietara egokitu behar izan dute Komunitateari laguntzeko sortu diren modu guztiek. Egokitzapen horretan, funtsezkoa izan da teknologiaren eginkizuna: herritarrentzako berehalako mezularitza zerbitzuak, akonpainamendua erraztu duten bideo deietarako plataformak, elikagaiak emateko kanpainen irismena hobetu duten gizarte sareak, herritarrentzako informazio garrantzitsua helarazi duten irratikomunitarioak, etab.




ZER DA AVILOTU?



Orain, inoiz baino gehiago behar dugu auzoetan jendea konektatuta egotea. Horregatik, Auzotu proiektuaren bidez, herritarren laborategi gisa funtzionatzen duen espazio bat ireki nahi dugu, galdera hau aztertu eta haren inguruan esperimentatzeko: **nola lagun diezaieke teknologiak laguntza komunitarioko ekimenei funtzionatzen?**

Horretarako, prozesu bat jarri dugu martxan Donostian, eta, Amaraberri auzoko komunitate bizitzan parte hartzen duten pertsonen parte hartzea lagun, irtenbide teknologikoak komunitate aktibazioko auzo prozesu eta ekimenetan txertatzeak planetatzen dituen aukerak eta oztopoak identifikatuko ditugu.




ZER GALDU DUT AVIOTUN?

Landa lan batekin hasi da Auzotu, zeinean Amaraberrin bizi diren edo lan egiten duten pertsonekin hitz egin dugu, COVID-19aren krisia nola bizi izan zuten eta teknologia nola erabili zuten jakiteko. Oso ekimen erabilgarri, eder eta sortzaileen berri izan dugu, auzotarrak bakarka edo beste erakunde batzuekin inplikaturatu dituztelarik. Lorratz asko eman dizkigute elkarrizketatutako erakunde guztiek teknologia erabiltzeko premiei, onurei eta zailtasunei buruz: direla udal arloak (Osasuna sustatzeko Atala, Gizarte Ekintza, Donostia Kultura, Euskara, Kultur Aniztasuna, Partaidetza, Donostia Lagunkoia...) direla auzoko eskolak (Amara Berri, Katalina Erauso, Larrun, Karmelo...), merkataritza sektoreko elkarteak (Arcco eta Gipuzkoako Merkataritza Federazioa-Amara), elikadura arloko establezimenduak (Merk&to, mintzalekuak, Eroski, Super Amara, BM...), Garmendia farmazia, irabazteko asmorik gabeko erakundeak (Amaraberriko auzo elkarte, Berritsu, Gure Egunsentia Erretiratuen Elkarte...) eta elizak (Arrosarioko Andre Maria parrokia, Eliza Ebanjelikoa). Lehen fase hori amaituta, parte hartzeko lantegi batzuekin hasi gara, Amaraberrin pandemiatik bizi dugun errealitatean sakontzeko.



Orain arte, 2021eko udara bitartean antolatuko ditugun bost lantegien lehenengoa egin dugu. Aurreko lantegietan egon gabe edozein lantegitan parte har badaiteke ere, lehen saio honen emaitzak partekatu nahi ditugu. Ondoren ikus ditzakezu.



AUZOTU EKIMENEN LEHEN PARTAIDETZA LANTEGIA

Eguna: 14/12/2020

Iraupena: 18:30 - 20:40

Tokia: Gure Egunsentia elkartearen egoitza



Herritarrei laguntzeko hainbat ekimen ezagutzea eta elkarrekin lotzea dira lehen elkarraldi horren helburu nagusiak, haien egunerokotasunaz gehiago jakiteko, ikasi dituztenak aztertzeko eta teknologiek haien lanean izan duten zereginera lehen aldiz hurbiltzeko.



OBJETIVOS

Saioak hiru helburu espezifiko ditu:

1. Auzoko bizitzan parte hartzen duten pertsona aktiboen arteko topagune bat sortzea.
2. Hilabete hauetan Amaraberrin gertatutakoari buruz eta hango komunitatean sortu diren ekimenei buruz hausnartzea.
3. Dinamika horietako batzuk etorkizunari begira mantentzeko eta indartzeko zer urrats egin daitezkeen identifikatzea.

Helburu horiek lortzeko, saioan hiru dinamika planteatzen ditugu, sarreraz eta partaideen balorazioa jasotzeko itxieraz gain:

1. Nor gara?
2. Zer egin eta ikasi genuen?
3. Nor gaude eta nor falta da?

1. DINAMIKA: NOR GARA?



Hiru galdera egiten dira, partaide guztiek
elkar ezagutzeko:

TXAPELAK


1. Zein dira gure txapelak?

ITXAROPENAK

2. Zer espero duzu saion honetatik?

BIHOTZA UKITZEN

3. Zer iristen zaizu bihortzeraino laguntza
komunitarioko sare batetik?



GURE TXAPELAK

Pertsona bakoitza besteei adierazten die Amaraberriko bizilaguna den, auzoan lan egiten duen ala ez eta, azkenik, ekimen formal edo informalen batean parte hartzen edo laguntzen duen.

Hala, taldea osatzen duten pertsonen artean, bakarka parte hartzen dute parte gehienek, auzoko bizilagun gisa; beste batzuk udalekoak dira, eta, beste batzuk, erakunde edo elkarte bateko kide gisa. Jarraian, dinamikan aipatu eta panel batean idatzitakoak jaso ditugu:

- Gure Egunsentia erretiratuen elkarte
- Amara Berriko auzo elkarte
- Berritsu Amara Berriko Euskara Elkarte
- Gobernu Zibila Kultur Etxea Plataforma
- Arrosarioaren Andre Maria parrokia
- Cáritas
- Amara Berriko Zaintza Sarea
- SuperXagu elkarte
- Amaraberriko eliza ebanjelikoa
- Gipuzkoako Itxaropen Telefonoa elkarte
- Donostia Kultura
- Donostiako Udaleko Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzako erretiratuen elkarteetako zerbitzua
- Donostiako Udaleko Osasuna Sustatzeko Atala
- Donostiako Udalaren lagunkoia programa





SAIORAKO ITXAROPENAK



Lehen saio honetan parte hartu zuten gehienak jakiteko asmoz etorri ziren.

Esan zutenez, gehiago jakin nahi zuten proiektuari eta Amaraberrirako eta Amaraberrin lanean ari diren pertsona eta erakundeei buruz, alde horretan egon daitezkeen beharren gainean, oro har egiten denaz eta azken hilabete hauetan egin denaz.

Parte hartzaileek esan zuten jakin min horrek hainbat helburu zituela:

- Eragile eta ekimen horiekin guztiekin **konektatzea**
- Elkartzeko eta hausnartzeko gune bat **sortzea**
- Auzoko errealitateak **partekatzea**
- **Inplikatzeari**, auzoan zerbait egiteko
- Herritarren **osasuna hobetzea**, kohesioaren eta parte hartze komunitarioaren bidez.

Sintonia handia lortu zen Dinamika horretan parte hartu zutenen artean. Gehienek elkartasun hitza aipatu zuten. Merezi du haien definizioa aipatzea: “inoren kausa edo interesei baldintzarik gabe atxikitzea edo laguntzea, bereziki, egoera konprometitu edo zailetan”.

Pertsona askok aipatu zituzten sareak sortzeko eta pertsonak ondoan daudenei laguntzeko prest egoteko behar diren osagaiak: eskuzabaltasuna, borondatea, konfiantza, umore ona, hurbiltasuna, adiskidetasuna, lotura...

Batzuek esan zuten zer sentitzen den laguntza sare bat dagoenean: lasaitasuna, zoriona, independentzia, segurtasuna...

Zalantzarik gabe, horiek guztiak kausa eta ondorio faktoreak dira, elkarrekin erlazionatzen dira eta, sare komunitarioak abian jartzen direnean, egon egoten dira.



LAGUNTZA SAREETAN BIHOTZA UKITZEN GAITVENA

Pertsona batzuek gizarte beharrei erantzuteko sareak sortzeaz hitz egin zuten, kudeaketa hurbil, komunitario eta autogestionatuaren bidez, pertsona guztiengandik guztiengana.

Azken batean, hainbat pertsonak beren bihotzetan adierazten zuten bezala, pertsonak beren auzoan dauden pertsonen egoeraz arduratzen dira eta “kemenez” guztien ongia bilatzen dute.

2. DINAMIKA: ZER EGIN ETA IKASI GENUEN?


COVID-19aren aldi honetan auzoan eta Donostian bizi izandako egoerari buruz batera hausnartzeko, galdera hau egin genuen: **nola eragiten digu osasun egoera honek eguneroko bizitzan, eta zein izan dira abian jarritako baliabide komunitario eta digitalak?** Labur-labur bildu ditugu azaldutako gogoetak.

Esan zutenez, koronabirusaren krisiak “prekaritatearen prekarizazioa” ekarri du, eta, hasierako uneetan, beldur, inpotentzia eta ziurgabetasun handiak, sentimendu horiek, oraindik, badiraute, konponbide argirik ez ikustearen ondorioz. Berretsi dutenez, arazo asko hor zeuden eta egoten jarraituko dute osasun larrialdia desagertzen denean. Desberdintasunak sortzen dituen sistema ekonomiko bateko egoerak dira, eta gero eta handiago bihurtu dira langabezia, aldi baterako erregulazio espedienteak edo denda txikien zailtasunak emendatu ahala.

Egoera horren aurrean, gogorarazi zutenez, krisi guztiak bezala, hau ere aukera bat izan daiteke gure sistema sozial eta ekonomikoari buruzko birplanteamendu sakonago, estrukturalago bat egiteko. Auzoak erantzun azkar autogestionatua eman du, eta, etorkizunari begira, inspirazio eta esperantza iturria da hori.

Dinamika horretan, komunikaziorako eta akonpainamendu eta laguntza harremanetarako **tresna teknologikoak erabiltzera** ere hurbildu gara. Pertsona asko bat etorri zen adieraztean haien gailu mugikorrek edo beste batzuek aplikazio gehiago eta berriak zituztela (ZOOM motakoak), eta lehendik zituzten beste aplikazio eta zerbitzu batzuk **gehiago erabili zituztela** (Whatsapp, Interneteko bankuak). Halaber, aipatu zutenaren arabera, pertsona batzuek beste pertsona batzuei lagundu behar izan zieten, horietako asko adinekoak baitziren, teknologiari dagokionez, beharrezko eta oinarrizko zenbait eginkizun egin ahal izateko. Horregatik, beharrezkotzat jo dute **ikasteko aukerak** ematea, teknologiak eskaintzen dituen ahalbideak hobeto aprobetxatzeko.





Biztanleriaren bi talderi buruz galdetu dugu: adinekoez eta gazteez. Lehenengoei dagokienez, esan dutenez, komunikazioarekin eta harremanekin lotuta dago **adineko pertsonen** beharren parte handi bat. Alde horretatik, **konpartitzeko eta hitz egiteko espazio fisikoak** (ukitzeko eta ikusteko) behar direla planteatu dute, esaterako, adinekoen etxeak. Aipatu dutenez, Amaraberriko adinekoen etxea zainketa dinamika seguruak eta osasungarriak ezartzeko gune garrantzitsua da eta izan da.

Gazteei dagokienez, **pandemian ahaztutako populazioa** izan dela aipatu dute, batez ere nerabeak. Esan dutenez, gazteak erruduntzat jotzen ere saiatu dira batzuk, kanpaina mediatiko batzuen bidez, haien adinari dagozkion jarrerengatik. Alde horretatik, pandemia honetan, auzoan beste batzuei laguntzeko prest daudela erakutsi dute, gazte talde batek jarri baitu martxan Amaraberriko Zaintza Sarea.

Ohartarazi dutenez, **laguntza sareen** eginkizun nagusia **behar instrumentalak eta materialak** betetzea izan zen (“hornidura”), eta azkar sortu ziren, are erakundeek eurek erantzun aurretik ere. Bestalde, aipagarritzat jo dute Lagun Katea udal ekimenak izan zuen betekizuna, adineko pertsonen nola zeuden eta zein behar zituzten jakiteko telefonoz deitzen baitzieten. Askotan, elkarrizketa horietan, auzoetako laguntza sareen berri ematen zieten.

2. DINAMIKA:
ZER EGIN ETA
IKASI
GENVEN?

2. DINAMIKA: ZER EGIN ETA IKASI GENUEN?

Laguntza sareekin batera, **dinamika txiki asko egin ziren atarietan**, etxekonekoen artean pertsonen artean ekimenak izaten baitziren, adibidez, pertsona batek beste bati inprimagailu bat uztea edo janaria prestatzea. Ataria sostengu eta zaintza ekintzen ardatz bihurtu zen. Ildo horretatik, **merkataritza txikiaren zeregina nabarmendu zuten**, haiek ere **laguntza keinu txikiak egin ohi baitzituzten beren herritarrei laguntzeko**. Horrek bereizi egin ditu merkataritza korporazio handietatik.

Kulturaren egitekoaz galdetu dugunean, **funtsezko** alderdi gisa aipatu dute COVID-19aren hilabete hauetako eguneroko bizitzan. Donostia Kulturak, adibidez, zeregin garrantzitsua izan zuen Donostiako haurrentzako edukiak sortzen. **Ipuinaren ordua eguneroko Interneteko jarduera bihurtu zen**, eta etxekoak elkartzeko unea izaten zen. Norbaitek esan zuen musika emozioen katalizatzaile ona dela eta egunero laguntzen diela pertsonari. Gaur egun, funtsezkoa da pertsona bakoitzak **sormenerako eta lankidetzarako** dituen baliabideekin kultura lantzea. Horren adibide da Amarako Penelopeen ekimena. Bere lana, quilt artistiko bat, adinekoen etxean bertan zegoen ikusgai egun hartan.

Halaber, aipatu zutenez, COVID-19a sufritu duten pertsona batzuk jasan behar izan dute inguruko **errefusa**, historian beste gaixotasun infekzioso batzuekin gertatu den bezala. Horrekin batera, kutsatutako pertsona askok **erruduntasun** eta beldur handia sentitu dituzte, haiekin bizi diren, lan egiten duten edo, oro har, tratatzen dituzten pertsonak kutsatzeko.




3. DINAMIKA NOR GAUDE ETA NOR FALTA DA?


Bizilagunei laguntzeko ekimenak lotzen eta antolatzen teknologiak duen garrantzia aztertu nahi badugu, zer hobe nor gauden eta nor falta den begiratzen hastea baino.

Ariketa honetan, saioko parte hartzaileen txapelak itsatsitako panelera itzuli ginen, eta, haien ustez, Auzoturen hurrengo saiotan parte hartu beharko zuten erakundeei eta pertsonei buruz galdetu genien.

Hala, hurrengo pertsona eta erakundeak aipatu zituzten: bizitzaren gorabeherengatik (gaixotasuna, mendekotasuna, etab.) etorri ezin diren pertsonak, auzoan bizi diren etorkinak, gazteak, atarrietako atezain dauden pertsonak, denda txikiak, merkataritzaren erakunde ordezkariak, farmaziak, anbulatorioa, Ongi Etorri Eskolara programa, eskolak, eskoletako guraso elkarteak, ostalaritza, CEAR, Agifes... Nabarmentzekoa da auzoan antolatutako emakume feministen talde bat falta zela, eta, beraz, ezin izan zuten gonbidatu erakunde jakin bat ikuspegi feminista hori sartzeko.

Ariketa bukatzeko, bi gonbidapen banatu genizkion pertsona bakoitzari, haien ustez, saiotan egon beharko luketen pertsonei helarazteko. Gonbidatutako pertsona horiei buruzko xehetasunak saioen talde antolatzaileari helaraziko dizkiote.





Saioaren amaiera eta balorazioa


Parte hartzea eskertu genuen. Bertan zeuden pertsonen eta etorri ezin izan diren baina Auzotu ekimenaren berri duten beste batzuen parte hartzea funtsezkoa da, beren denborarik eta interesik gabe Auzotuk ez baitu zentzurik.

Gogorarazi genuenez, lehenengo topaketa izan arren, hurrengo asteetan, uda arte, beste 4 elkarraldi egingo dira. Horietan, teknologiak Amarako laguntza sareen dinamikei laguntzeko nola baliatu pentsatzen jarraitu nahi dugu. Haietan parte hartzen jarraitzeko gonbita egin genuen.

Balorazioa, oro har, positiboa izan zen, parte hartu zuen pertsona kopuruagatik eta saioan egondako giroagatik. Hobetu beharreko puntu gisa, hilabete hauetan auzoan funtsezkoak izan diren pertsonen parte hartzea gogorarazi zuten, hala nola denda txikietako eta farmazietako pertsonena eta beste batzuenak. Laneko ordutegiak kontuan hartuta, ez da erraza izango saio horietan parte hartzea, baina haiekin alderatuko dugu lantaldeak egiten duen lana.



Inplikaturako pertsonei eskerrak ematea



Amaraberriko pertsona eta erakunde publiko eta pribatu askok jardun dute, udazken honetan, Auzotu taldekoekin, konfinamenduaren garaiko eta 2020. urtea amaitu arteko hurrengo hilabeteetako bizipenen inguruan. Hala ere, COVID-19aren garai honetako denbora murrizketengatik, hamazazpi pertsonako talde mugatu bat gonbidatu dugu. Lehentasuna eman diegu auzoan bizi diren eta auzoko jardueretan parte hartzen duten pertsonei, bai norbanakoaren ekimenez, bai talde informalen edo irabazi asmorik gabeko erakundeen bidez (“gure txapelen” dinamikan aipatuak). Guztiei eskertzen dizkiegu hasi berria duten laborategi honetan parte hartzeko eskuzabaltasuna eta elkartasunezko interesa.

Saio honetan parte hartzera gonbidaturako pertsonak


Antonio Rodriguez, Beatriz Cuadrado, Begoña Arrizabalaga, Eider Galán, Marian Zarraonaindia, M^a Jesus Chasco, Petri Barbero, Iker González, Isidro Yoldi, Maddi Arrieta, Mariela Leucrini, Begoña Calleja, Sorkunde Jaka, Maite González, Eva Salaberria, Iñaki Gabarain, Loli Estevez


Lantalde dinamizatzailea

Adriana Martínez, Andrea Navarro, Martin Zuñiga, Bego Pecharroman y Aritz Rodriguez

Auzotu taldea

Deustuko Unibertsitatea, Saiaz Mankomunitatea, Ayuntamiento de Donostia: Donostia Lagunkoia, Teléfono de la Esperanza de Gipuzkoa, Apitropik, Aptes, Farapi, La Escalera, Lotura





ESKERRIK ASKO, HURRENGO SAIORA ARTE

Promueven:



Apoyan:



komunitateak konektatzen
conectando comunidades